

Santikutz txirrindulari probak 75. urteurrena beteko du aurten

Kirola » Telleriarte Txirrindulari Elkarteko kide Sebastian Santestebanek Legazpiko lasterketaren historia bildu du

MIRIAM LUKI


Aurten 75 urte beteko ditu Legazpiko Santikutz txirrindulari probak Maiatzeko Santikutz jaietan jokatzen den txirindu lasterketaren urteurrenean ekitaldi bereziak antolatuta dituzte aurten. Tartean probaren historiaren berri ematen duen liburua aurkezpena, parte hartu izan duten txirrindularien topaketa, Euskal Herriko Itzulien lehenengo bi etapak ere Legazpitik aterako dira, giroa berotzen hasteko.

Maiatzaren 31n izango da Santikutz proba «Estatuko 25 talderik onenak ekarriko ditugu, amateur 13 CAP delakoan partaide diren taldeak eta Euskal Herriko beste hiru talde ere gurean izango dira. Punta-puntako txirrindulariak ekarriko ditugu aurten urteurrena ospatzeko», dio Sebastian Santestebanek. Telleriarteko Txirrindulari Elkarteko kideak eta probaren antolatzaileak

Beteranoen topaketa

75 urte horietan Legazpiko klasikoan sariren bat jaso duten garai bateko eta oraingo txirrindulariak ere elkartuko dituzte. Maiatzaren 31n izango da beteranoen bazkaria; baita Santestebanek Legazpiko itzulari buruz idatzitako liburua ere aurkezpena ere.

«Berrogei bat irabazlerekin hitz egin dugu. Laurogei bat urte dituztenak ere badira, eta sasoiari dandenez etorriko dira». Guztiei plaka bana emango diete, eta ondoren elkarrekin bazkalduko dute. «Lehenago egin nahi genuen ekitaldia baina irabazleetakoz batzuk



Santikutz probaren 75. urteurrenko logotipo lehiaketan saritua. MIRIAM LUKI

jarduneari daude eta lasterketa asko dauzkate garai honetan hementea atzerrian»

Liburua eta logotipoa

Maiatzaren 31n aurkeztuko dute liburua Latxartegi aretoan. Santesteban bitartean buru-belarri ari da lanean liburua osatzeko «Emaiztarekin gustura gelditu naiz. Berrehun bat argazki bildu ditut, urtez urteko proba bakoitzeko datuak ere bai». Liburuak 224 orrialde izango ditu eta euskaraz eta erdaraz kaleratuko dute.

Lehenengo Santikutz lasterketa 1929an burutu zuten. Ondoren sei urtetan gertatutako ez zuten antolatzerik izan. 2004an Legazpin bertan jokatu ez bazen ere, Santikutz izenarekin egin zuten Goierrin.

Atzo kultur etxean 75. urteurrenako deitutako logotipo lehiaketako sariak eman zituzten. Irabazleak Bidane Fernandez, Jone Piniñilla, Janire Celorrio eta Xabier Gabirondo dira.

Euskal Herriko Itzulia, Legazpitik


Txirrindularitza

Apirilaren 7an Legazpitik abiatuko da Euskal Herriko Itzulia, baita bigarren etaparen irteera ere.

M. LUKI

Aurten goiari ekin laguan en urtea izango da Legazpiko Telleriarteko Txirrindulari Elkartek Euskal Herriko Itzulia eta probaren bat antolatzen duena. Aurten itzuliaren bi lehenengo saioak gainera.

Apirilaren 7an Legazpi-Legazpi etapa (137 km) osatu beharko dute tropelean izango diren goimailako hogeitabat taldeetako txirrindulariek. Irteera 13:40 aldera izango da eta helmugaratzea 17:00etan. Bi-



Euskal Herriko Itzulia, jaz Urretxuko Santa Barbara gainera igotzen. G. ARANBURU

garren etapa Legazpi-Ei andio (153 km) izango dute. Asteartean 13:15ean irteera da tropela Legazpitik.

«Dena prestatuta daukagu dagoneko. Izan ere, laugarren urtea da eta itzulian en antolaketan eskarmentua badugu» amaitu du Santestebanek.



Filmaren kartela.

'La camarera' filma eskainiko du gaur gauean Zineklub taldeak Latxartegin

Zinema » Esparru independentearen barruan, komedia erromantikoko filma aukeratu du zineklubak

M. LUKI

Latxartegi aretoan *La camarera* filma emango du gaur gauean Legazpiko Zineklub taldeak, 21:30ean hasita.

Adrienne Shelly zuzendari estatubatuarrik iaz ekoiztutako filmak harrera ona izan zuen Sundanceko zinemaldian. Filmaren errodajea amaitu gabe zegoela zendu zen zuzendaria.

Pastelak eta zoriontasun ez

Jenna Amerikako Estatu Batuetako hegaldian bizidun emakumea da. Ezkondua dago eta taberna batean zerbitzari gisa lan egiten du. Senarrarekin ez da zoriontsua, eta unerik desagokienean haurdun gelditzen da. Jennak ez du senarrarekin haurrik eduki nahi.

Gustukoa du pastelak egitea eta egunerokotasuneko gazi-gozaok kontatzen ditu bere pastelen bitartez. Bere gaziak gozora ekarriko ditu, ordea, haurdunaldia zaintzen dion ginekologok.

Zinema independentearen barruan kokatu dute kritika-eriek gaur Legazpin ikusi ahaliko den filma. Komedia erromantikoa da.

Korten historia mintzagai gaur

Historia » Luis Mari Zalduek hitzaldia emango du gaur Legazpiko kortei buruz, 400 Urtez Aske batzordeak antolatuta.

M. LUKI

Kortak Legazpin: antzinako lurralde antolamendua hitzaldia eskainiko du gaur Luis Mari Zalduek Legazpiko kultur etxean. Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioko zuzendaria da Zalduek. Hitzaldia Legazpi 400 Urtez Aske ba-

tzordeak antolatuta du, eta askapenaren 400. urteurrena dela eta antolatuta duten bigarren saioa da. Gaur arratsaldeko zazpitan hasiko da Zalduek solasaldia.

Saroiak eta kortak liburua ere egilea da Zalduek, eta antzinako lurralde antolamenduari buruz hitz egingo du gaurko hitzaldian.

Kortak, eremu bereziak

Askorako balio zuten kortek antzina. Abelzaintzarako lur egokiak ziren kortak, alde batetik, eta eremu berezituak ere baziren. Arau eta eskubide propioak zituzten lur-

eremu haiek. Ezaugarri horien guztiengatik kortek garrantzia izan zuten iraganeko lurralde antolamenduan.

40 kortatik gora Legazpin

Garai batean Legazpin berrogei korta baino gehiago zirela kontatuko du gaur Zalduek. «Kilometro koadro bakoitzeko korta bat batabeste Gaur, ordea, mendi-gailur batera igoz edo airetik ateratako argazkiei erreparatu gero nekez ikusten da kortarik, ez dago eite biribila duen esparru handi askorik begibistan».

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA